

## 1. TAILLERA. Hizkuntz komunikazioa: ahozko adierazpena

Tailer honen **helburu nagusia honako hau izan da:**

Hezkuntzako eragile ezberdinen (ikasleak, gurasoak, irakasleak, zuzendaritza taldekide eta beste batzuk) parte hartzearekin

- Ahozko adierazpenari ematen zaion garrantzia baloratu eta azken urteotan azpi gaitasun hori lantzeko erabili diren metodologiak baloratzea
- Ahozko adierazpenaren jabetze lanketaren hobekuntzarako ideiak eman arlo akademikoaz gain beste esparru batzuk (esparru formalak eta ez formalak) kontutan hartuz

**Gaiari sarrera emateko eta kokatzeko Deustuko Unibertsitateko irakaslea den Myriam Martinez Izagirrereren aurkezpena izan genuen. Bere hitzaldian adierazitako klabe batzuk:**

- Gaitasun honek arrakasta pertsonala, akademikoa zein profesionalean duen garrantzia ukazina dela (*lo importante no es saber sino saber decir*)
- Adierazle batzuk kontutan harturik ahozkotasuna pendiente dugun erronka dela esan dezakegula
- Ahozko adierazpen garatze maila ona lortzeko hizkuntzaren ezagutzeaz gain kontutan hartu behar diren elementu batzuk aipatu
- Erabiltzen diren metodologian sartu beharko liratekeen aldaketak (irakaslearen papera, hizkuntzak lantzeko ikuspegia, ahozkotasuna landu beharreko arloak)
- Ikaskuntzaren gakoa ebaluaketan dagoela: la evaluación no solo define lo que se aprende sino cómo se aprende
- Hezkuntza informala kontutan hartzea ezinbestekoa dela
- Nola lagun dezaketen familiak

Sarrera horren ondoren wold cafe dinamika erabili dugu denon parte hartzearekin gai inguruan hausnarketa egiteko

Planteatutako galderak eta erantzunen laburpena:

**1) Ahozko adierazpeneko garrantzia baloratu hizkuntza gaitasuna hala nola beste gaitasunen garapenean:**

Ahozko adierazpena zeharkakoa da eta horretan konpetente izateak ondo pentsatzea, kritiko, asertiboa, autonomo eta autoestimua orekatua izatea suposatzen du

**2) Ba al dator bat ematen zaion garrantzia lantzen den modua eta intentsitatearekin?**

Honetan aipatzen da garrantzia ematen zaiola baina oraindik ez direla nahiko ematen diren ahozkotasuna lantzeko aukera errealak.

Ez dagoela lan sistematiko bat (behetik gora eta arlo ezberdinetan) eta ikasleen interesekin konektatzeko gaien planifikazio errealak

Hizkuntzen arabera eta testuinguruaren arabera Metodologia egokiak eta ezberdinen erabileraren beharra dago

Galdera batzuk edo kezka batzuk sortu ziren:

- Gizarte Komunikabideek ez dutela laguntzen

### 3) Nola lantzen da ikastetxeetan ahozkoahozkotasuna? Jende aurrean hitz egitea lantzen da? (Esperientzien elkartrukea egon da)

Ikastetxe gehienetan edo askotan argi daukate gaitasun honen lantzearen garrantzia eta hobekuntza proiektu asko ari dira martxan jartzen

- Ahozko aurkezpenak edo debateak arlo gehienetan
- Talde lanak eta ariketak taldeka ebatzea
- Gorputz Hezkuntzan adierazpen korporala lantzea antzerkia edo dantzaren bidez ahozkoahozkotasunerako euskarri moduan
- Gelak U forman antolatu hitz egitea errazteko
- Lan kooperatiboa eta talde malguak irakasgai guztietan gai baten oinarrituta
- Mahaiak kafearekin gaiak eztabaidatzeko
- Binakako irakurketa, lan kooperatiboa
- Bitartekaritza konfliktoak lantzeko (ahoz egiten da guztia)

Zailtasunak: egoerak sortu behar direla ikasleen ahozkoahozkotasuna lantzeko (metodologiaren aldaketa). Haur hezkuntzatiketa lehenengo urtetan enfokea linguistikoa da baina testu liburuak sartzen direnean sistema guztiz aldatzen da, ahozkoahozkotasunaren presentzia gutxituz doala

Irakasle guztiek ez dute ikusten aldaketaren beharrik

Ahozko aurkezpenak ez dute balio handirik kalifikazioetan, gure ikasteko tradizioa idatzizko testuetan oinarrituta dago- Ebaluatze beharra

Zuzendaritzatik: oreka mantendu behar dela korrante berriak eta nolabaiteko disziplina mantentzearekin

### 4) Pozik gaude emaitzekin? Zergaitik

**Ikasleek:** bai pozik gaude baina ekintzak anitzak izan beharko lirakeela eta kurtso guztietan zehar

**Irakasleek:** ez hain beste

Ikastetxeetan estruktura, arkitektura aldetik gehien bat ez daude antolaturik metodologia batzuk erabiltzeko (lan kooperatiboa, proiektuen bidez,... ) Iparraldeko herrietan Ikastetxeetako diseñua oso ezberdina da, pasiluak ere erabiltzen dira, laborategiak eta beste espazioak. Bertan ere irakasleak onenak dira eta oso froga gogorak pasa behar dituzte.

### 5) Ahozko adierazpena garatzeko eta hobetzeko sortzen diren inguruneak eta egoerak:

- Ingurune errealak sortu behar dira, ikasleen interesekin loturik daudenak. Eskola askotan gizartetik urrun dago eta hurbildu beharra ikusten da

- Ikasgelan egoera komunikatiboak sortu behar direla
- Ikasle nagusi eta txikien arteko elkarrekintzak promozionatu
- Ikaslea hitz egiterakoan hanka sartzearen bildurra gainditzen lagundu behar diogula horrela libre sentitu dadila,
- Ikasle guztien parte hartzea bermatu behar dela

#### 6) Hobetzeko proposamenak

- Ikastetxeetan estruktura, arkitektura aldetik gehien bat ez daude antolaturik metodologia batzuk erabiltzeko (lan kooperatiboa, proiektuen bidez,... ) Iparraldeko herrietan Ikastetxeetako diseñua oso ezberdina da, pasiluak ere erabiltzen dira, laborategiak eta beste espazioak. Bertan ere irakasleak onenak dira eta oso froga gogorak pasa behar dituzte.
- Ikastetxeetako Hizkuntza proiektuetan jasotzea eta garatzea (irakaskuntza lanaz gogoeta eta erregularizazioa eginez)
  - o Ikastetxeko kurrikulumenetan agertzea
  - o Arlo guztietan lantzea
  - o HH-tik batxilergora Etapa guztietan lanketaren garapena (etapen arteko koordinazioa)
  - o Ereduak bilatu eta praktikatu
  - o Egunerokotasunean erabili behar den hizkuntza landu behar da baita ere – Hizkuntza funtzionala (ez hizkuntza akademikoa bakarrik-aurkezpenetan erabili behar dena)
  - o Ikasleen interesekin loturik dauden gaiak aukeratu haien motibazioa areagotzeko
  - o Ebaluaketan sartzea (kanpoko ebaluaketan, ebaluaketa diagnostikoan ere)

**Familia:** ahazkotasuna bultzatu seme alabekin hitz egiten eta entzuten pixkat denbora eskeintzen haien seme alabeei

**Eskolaz kanpokoetan:** ikastetxe eta familien arteko harremanak sendotu edo hurbildu, eskola eta gizartea urruti daude eta hurbiltzeko beharra dagoela ikusten da

**Eskolan:** gai akademikoaz hitz egiteaz gain, inguruan gertatzen denari buruz hitz egitea (debateak, iritziak emon ...) eta familian ikastetxean egiten edo gertatzen denari buruz hitz egitea

**Amaitzeko Azpimarratzekoa da** parte hartzea oso zabala eta aberasgarria izan dela. Esperientziak, kezak, erronkak, ilusioak eta hobetzeko proposamenak elkarbanatzeko aukera on bat izan dela uste dut . Kontutan harturik parte hartzaile gehienak hezitzaileak izan direla bereziki eskertu da ikasleen eta gurasoen parte hartzea, beste ikuspuntu bat eman dutelako.